

DEIALDIA. Euskadiko Autonomia Elkarteko Adminis-traziorako izango den idazketarako eta dibujorako materiale suntsigarria hornitzeko Lehiaketa Publikoa-reна. 5793

HERRIZAINGO-SAILA

Zenbait Pilota-leku estaltzeko trenkadaz zuzkitu eta beraiek jartzeko akurapenerako NORNAHIRENTZAKO LEHIAKETA. 5794

Altzariak eta beraien osagarriak akuratzeko NORNA-PIRENTZAKO LEHIAKETA. CP-40/88 zehaztapidetza. 5795

LEHIAKETA PUBLIKOA, UPS bihurgailu automati-koen eta ordezko aholkugarrien hornidura kontratatzeko. (Hutsen zuzenketa). 5796

HERRIOGASUN ETA DIRUBIDEETARAKO SAILA

IRAGARPENA, Eusko Jaurlaritzako Herriogasun eta Dirubideetarako Saileko Ondare eta Kontrataziotarako Zuzendaritzarena. 5796

IRAGARKIA, Kontrataziorako Batzorde Nagusiaren; Lehiaketa Publikoko procedura bidez, «Hezkuntza, Uni-beritate eta Ikerketa Saileko Artxiboaren Antolaketa» esleitzu. (K.B.N.-ren 288/87 zbk.-dun Esp.). 5797

CONVOCATORIA de Concurso Público para la contra-tación del suministro de material fungible de escritorio y dibujo, con destino a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. 5793

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

CONCURSO PUBLICO para la contratacion del sumi-nistro con instalación de mañparas para cierre de frontones. 5794

CONCURSO PUBLICO para la contratacion de mobilia-rio y complementos. Expediente número CP-40/88. 5795

CONCURSO PUBLICO para la contratación del sumi-nistro de convertidores automáticos UPS y repuestos aconsejables. (Corrección de errores). 5796

HACIENDA Y FINANZAS

ANUNCIO de la Dirección de Patrimonio y Contrata-ción del Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco. 5796

ANUNCIO de la Comisión Central de Contratación para la adjudicación, mediante el procedimiento de Concurso Público de la «Organización del Archivo del Departamento de Educación, Universidades e Investiga-ción». (Expte. C.C.C. nº 288/87). 5797

Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA**2661**

Abenduaren 15eko 370/1987 DEKRETUA, Azaroaren 24eko 10/1982 Legearen 29. atalak dioena betetzeko Euskararen Aholku Batzordea antzaldatuz eta Lege horren Lehen Erabaki Gehigarriari dagokion zen-bait eginbehar Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiare egotziz.

ARRAZOI-AZALPENA

Euskararen Aholku Batzordea sortu ondoren Euska-raren Erabilera Normalzeko Oinarri-Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Estatuto Gobernuak Konstituzioaz koutrako Errekurtsoa tartean jarri zion gero Lege horretako zenbait atali; eta Konstituzio Auzitegiak ema-na du, azkenik, errekurso horren Epaia.

Euskararen Aholku Batzordea egituraz eta funtziонаldez antzaldatzea komeni da, guzti horregatik, Euska-raren Legeak zenbait ataletan dioena betetzeko: 29. atalean dioena, bereziki, elkargune bat sortarazteaz.

PRESIDENCIA**2661**

DECRETO 370/1987, de 15 de Diciembre, por el que se transforma el Consejo Asesor del Euskara para dar cumplimiento al mandato del artículo 29 de la Ley 10/1982, de 24 de Noviembre y se atribuyen a la Secretaría General de Política Lingüística determinadas competencias en relación con la Disposición Adicional Primera de dicha Ley.

EXPOSICION DE MOTIVOS

Dado que con posterioridad a la creación del Consejo Asesor del Euskera fuera aprobado por el Parlamento Vasco la Ley de Normalización del Uso del Euskera y habiendo dictado Sentencia el Tribunal Constitucional en el Recurso de Inconstitucionalidad que por el Gobierno del Estado fuera interpuesto contra determinados preceptos de dicha Ley, procede adecuar la estructura y funcionamiento de dicho Consejo a fin de posibilitar el cumplimiento efectivo de determinados preceptos de la Ley de Normalización y en particular el del artículo 29 que prescribe la creación de un órgano de encuentro.

Euskararen Ahokoa Batzordea elkarriketarako bilgune izango da, beraz. Eta, ondorioz, osakeraz ere izango du horren oihartzunik: Lurralde Historikoaren ordezkaririk izango da bertan, berdin Euskal Herrian sendo errouturiko erakunde eta elkarteetakoik, eta bai euskararen alor-eremuan begirune eta itzal berezia irabazia duen norbanakorik ere; politikazko harat-honaten gai-netik, gure hizkuntza sendotu eta zabaltzen lagunduko duen organoa izan behar du bilgunezko Batzorde honek.

Guzti horren ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez eta Jaurlaritzak 1987ko Abenduaren 15eko bere bileran aztertu ondoren, zera

ERABAKI DUT:

1. Atala.— 1. Euskararen Ahokoa Batzordea hizkuntza normaltzeko ahaleginetan ari diren erakunde desberdinak elkargune izango da, Azaroaren 24eko 10/1982 Legeak bere 29. atalean dioenaren ildotik.

2. Erakunde desberdin horien ahaleginak eta ekintzak aztertu, bideratu eta koordinatzeko lana, Lege horren aplikazio-garapenez denaz bezainbatean, Ahokoa Batzordearen Osokoaz eta Etengabeko Batzorde-atalaz bideratuko da batetik; baina, batez ere, Berarizko Batzorde-atalak baliatuko dira zeregin horretarako. Dekretu honetan ezartzen zaizkien eginkizunen ildotik bideratuko da, batean zein bestean, langintza osoa.

2. Atala.— 1. Honako talde-atalok izango ditu, bere langintzarako, Euskararen Ahokoa Batzordeak:

- Batzorde Osoa
- Batzorde-atal Iraunkorra
- Berarizko Batzorde-atalak
- 2. Norbanako atalok izango ditu, bestalde, Euskararen Ahokoa Batzordeak:
- Lehendakaria
- Idazkari Nagusia
- Berarizko Batzorde-atalen Bateragilea

3. Atala.— 1.— Ahokoa Batzorde Osoaren kideak honako hauek izango dira:

a) Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria, bere ordezkotza bala leritzonetan Jaurlaritzako Sailburu bat eman diezaiokeelarik.

b) Idazkari Nagusia: Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia bera.

c) Kultura eta Turismo Sailburuaren proposamenez izendatutako batzordekide bat.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez izendatutako batzordekide bat.

e) Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez izendatutako batzordekide bat.

f) Euskal Autonomi Elkarteko Lurralde Historikoetako hiru Foru Aldundien proposamenez izendatutako batzordekide bana.

g) Euskaltzaindiaren proposamenez izendatutako batzordekide bat

h) Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoreak proposaturik izendatutako batzordekide bat.

i) Deustuko Unibertsitatearen Errektoreak proposaturik izendatutako batzordekide bat.

j) HABErren proposamenez izendatutako batzordekide bat.

En este sentido, el Consejo Asesor del Euskera se configura como órgano de diálogo. De ahí que su composición sea fiel reflejo de este carácter, contando con representantes de los Territorios Históricos, organismos y entidades de gran raigambre en el País y personalidades de reconocido prestigio en el ámbito del euskera, sentándose así las bases para que este órgano, al margen de instrumentalizaciones políticas, contribuya al desarrollo y generalización de nuestra lengua.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia y previa deliberación del Gobierno en reunión del día 15 de Diciembre de 1987,

DISPONGO:

Artículo 1.— 1.— El Consejo Asesor del Euskera se configura como el órgano de encuentro de diferentes instituciones implicadas en la tarea de normalización lingüística, previsto en el artículo 29 de la Ley 10/1982 de 24 de Noviembre.

2. El estudio, canalización y coordinación de los esfuerzos y las actividades de las diversas instituciones, en lo referente a la aplicación y desarrollo de la Ley, se instrumentará tanto a través del Pleno y de la Comisión Permanente del Consejo, como singularmente, a través de las Comisiones Especiales, con arreglo a las funciones que se le encomiendan en el presente Decreto.

Artículo 2.— 1.— Los órganos colegiados de funcionamiento del Consejo Asesor del Euskera serán:

- El Pleno
- Comisión Permanente
- Comisiones Especiales

2. Los órganos unipersonales de funcionamiento del Consejo Asesor del Euskera serán:

- El Presidente
- El Secretario General
- El Coordinador de las Comisiones Especiales

Artículo 3.— 1.— La composición del Pleno del Consejo Asesor será la siguiente:

a) El Presidente: el Lehendakari, pudiendo éste delegar la Presidencia en un Consejero del Gobierno, cuando lo estime conveniente

b) El Secretario General: cargo que corresponde al Secretario General de Política Lingüística

c) Un vocal, nombrado a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo.

d) Un vocal, nombrado a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

e) Un vocal, nombrado a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

f) Tres vocales, nombrados a propuesta de cada una de las Diputaciones Forales correspondientes a los Territorios Históricos que integran la Comunidad Autónoma del País Vasco.

g) Un vocal, nombrado a propuesta de Euskaltzaindia.

h) Un vocal, nombrado a propuesta del Rector de la Universidad del País Vasco

i) Un vocal, nombrado a propuesta del Rector de la Universidad de Deusto.

j) Un vocal, nombrado a propuesta de HABE.

- k) EITBren proposamenez izendatutako batzordeki-de bat.
- l) HAAEren proposamenez izendatutako batzordeki-de bat.
- m) Euskarari buruzkoetan itzala aitortzen zaien artetik izendatutako hamabi batzordekide.
2. Batzorde Osokoaren artetik hautatutako batzordeki-de bat izango da batzar-agirien idazkari.
3. Kasuan kasuko aztergaiak hala eska dezanean, hartan jakitun den bestelako lagunik ere deitu ahal izango da Osoko bileretara. Hizpidea izango du halakok, baina botorik ezin emango du.
4. *Atala.* – 1. Lehendakariaren Dekretuz izendatuko dira Aholku Batzordearen kideak.
2. Lau urte iraungo dute batzordekideek kargu horretan.
3. Aurreko pasarteak dion aldia igaro izanagatik tokia utzitako batzordekideak beste kargualdi berrieta-rako proposatu eta izendatu ahal izango dira.
4. Heriotzez, ezintasunez, kargu-uzteaz edo beste zernahi arrazoirengatik batzordekideen artean hutsarte-rik gertatuko balitz kasuan kasuko erakundea jakinaren gainean jarriko da, falta den kargualdirako ordezkorik aukera dezan.
5. *Atala.* – Aholku Batzorde Osoaren eginkizun dira:
- a) Autonomi Elkarte osorako hizkuntz plangintza orokorraz, Eusko Jaurlaritzak berau onartu aurretik, beharrezko argibideak ematea.
 - b) Jaurlaritzaren mandatuz, Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntz plangintzaz diharduen zernahi arazo aztertu eta lantzea.
 - c) Jaurlaritzak onartu aurretik, Autonomi Elkarte osorako ekintza-planak osatzeko proposamenak presta-zea.
 - d) Eusko Jaurlaritzak argitasun-eske aurkeztuko dizkion luze-zabaleko agindu-gaiei buruzko bere eritzia jakinaztea.
 - e) Euskararen erabilera diharduten arauzko erabakieei etekinik hoherena ateratzeko, Jaurlaritzari nahiz kasuan kasuko Herri-Aginte eta Erakunde zein erabaki hartu proposatzea.
 - f) Euskalgintzan diharduten elkarteen langintza koordinatzeko arau gidariak eskaintzea.
 - g) Hizkuntza kontuan zeresan zuzena duten Herri-Aginte guztien jarduna bateratzeko neurriak propo-satzea.
 - h) Administrazio-gune desberdinietan euskalkien nahiz euskara batuaren erabilera sor ditzakeen gora-beherez, hala legokiokeenean Euskaltzaindiari bere eritzia eskatu ondoren, argibiderik ematea.
 - i) Gobernuak Soziolinguistikako Plangintza Mapa prestatu edo berrikusi aurretik, horri buruzko argibi-deak ematea.
 - j) Dekretu honen 15. atalak dioenaren ildotik egindo zaizkion galderai erantzuna ematea.
 - k) Batzorde-atal Iraunkorrak prestatuko duen urtero-ko txostena onartzea.

- k) Un vocal, nombrado a propuesta de EITB.
- l) Un vocal, nombrado a propuesta del IVAP
- m) Doce vocales, nombrados entre personalidades de reconocido prestigio en lo referente al euskera.
2. Actuará como Secretario de Actas, un vocal elegido entre los miembros por el Pleno.
3. El Pleno podrá recabar la participación en sus sesiones de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que asistirán con voz pero sin voto.
- Artículo 4.* 1.– Los vocales del Consejo Asesor serán nombrados mediante Decreto del Lehendakari.
2. La duración en el cargo de los vocales del Pleno, será de cuatro años.
3. Los vocales que cesaren en su cargo como consecuencia del trascurso del tiempo a que se refiere el apartado anterior, podrán ser propuestos y nombrados para nuevos periodos.
4. Las vacantes que se produjeran entre los vocales del Consejo por causa de defunción, incapacidad, renuncia o similar, serán puestas en conocimiento de la institución proponente para que proceda a designar sustituto, por el tiempo que reste del mandato del vocal sustituido.
- Artículo 5.*– Serán funciones del Pleno del Consejo Asesor:
- a) Informar sobre la planificación lingüística general para toda la Comunidad Autónoma antes de su aprobación por el Gobierno.
 - b) Estudiar y analizar, a instancias del Gobierno, cuantas cuestiones se refieran a la planificación lingüística en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
 - c) Formular propuestas para la elaboración de planes de actuación conjunta para toda la Comunidad Autónoma antes de su aprobación por el Gobierno.
 - d) Emitir su parecer en relación con aquellos proyectos sobre disposiciones de carácter general que sean sometidos por el Gobierno Vasco a su consideración.
 - e) Proponer al Gobierno y a las instituciones correspondientes la adopción de medidas adecuadas para la mejor aplicación de las disposiciones referentes al uso del euskera.
 - f) Proponer directrices para coordinar las actividades de entidades dedicadas al euskera.
 - g) Proponer medidas que aseguren la actuación coordinada de todos los poderes públicos con competencia en materia lingüística.
 - h) Informar, previa consulta con Euskaltzaindia en su caso, sobre puntos relacionados con la utilización de los distintos dialectos y del euskera unificado en los distintos ámbitos de la Administración.
 - i) Informar sobre el Mapa de Planificación Sociolinguística antes de su elaboración o revisión por el Gobierno.
 - j) Informar sobre las consultas que le deban ser sometidas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 del presente Decreto.
 - k) Aprobar el informe anual previamente elaborado por la Comisión Permanente.

l) Legez edo araubidez hala legokiokeen beste edozein eginbehar.

6. Atala.— Honako hauek dagozkio Lehendakariari, edota honek bere ordezketza emandakoari

a) Batzorde Osoa biltzeko deiak egitea.

b) Legeak betearaztea eta Batzordearen barne-jardunak eraz egin daitezten ziurtatzea.

c) Batzordeak prestaturiko txosten eta eritzi-azalpenak Jaurlaritzari bidaltzea.

d) Edozein norbanako nahiz entitate publiko zein pribaturen aurrean Batzordearen ordezketza egitea.

e) Legeek, Araudiek edota Aholku Batzordearen erabakiek egozten dion beste zeinnahi aginpidez jardutea.

7. Atala.— Honako hauek dagozkio Idazkari Nagusiari

a) Lehendakaria bertan ez dagoenean Batzorde-atal Iraunkorraren bileran buru izatea.

b) Batzordearen eta Batzorde-atalen ekintzak koordinatzea.

c) Lehendakariaren gidaritzapean, Aholku Batzordearen eta bere Batzorde-atalen erabakiak bete daitezen zaintzea.

d) Tramite-kontuei bere bideak eginaraztea.

e) Legeek, Araudiek edo Aholku Batzordeak eta Batzorde-atalek (azkenok aktan jaso-arazitako erabakiz) eman diezazkioten gainontzeko egitekoak bideratzea.

8. Atala.— 1. Honako hauek izango dira Batzorde-atal Iraunkorraren kide:

a) Lehendakaria

b) Idazkari Nagusia

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez izendatutako batzordekidea.

d) Kultura eta Turismo Sailburuaren proposamenez izendatutako batzordekidea.

e) Batzorde Osoak bertakoetatik izendatutako hiru batzordekide.

f) Osoko akta-idazkaria, aurrean esandako horietako bat ez bada.

2. Akta-idazkaria Batzorde Osokoa bera izango da, non eta Batzorde-atal Iraunkorrik besterik erabakitzentz ez duen.

9. Atala.— Batzorde-atal Iraunkorraren eginkizun dira:

a) Osoko bileran landu beharreko gaiak aztertu eta arauz bideratzea.

b) Eztabaidagai izatekoak diren puntuez Batzorde Osoari beharrezko argibideak eskaintzea.

c) Batzorde Osora zein gai aurkeztu eta zein ez erabakitzea, edozein gairi heltzeko azken hitza beti ere Batzorde Osoak bere duelarik.

d) Aholku Batzordearen urteko ekintzen txostena prestatu eta, onespens-ak, Batzorde Osoari aurkeztea.

e) Legeek, Araudiek edota Aholku Batzorde Osoak eskuratu diezaion beste edozein arazo.

l) Cualquier otra función que le atribuyan las Leyes o los Reglamentos.

Artículo 6.— Corresponde al Presidente o al Consejero en quien delegue:

a) Convocar el Pleno

b) Asegurar el cumplimiento de las Leyes y la regularidad de las deliberaciones

c) Remitir al Gobierno, los dictámenes o informes que elabore

d) Representar al Consejo, ante toda clase de personas o entidades públicas y privadas.

e) Ejercer las demás facultades que le confieran las Leyes, Reglamentos y acuerdos del Consejo Asesor.

Artículo 7.— Corresponde al Secretario General:

a) Presidir la reunión de la Comisión Permanente cuando no asista el Presidente.

b) Coordinar las actividades de las distintas Comisiones.

c) Cuidar, bajo la dirección del Presidente, del buen fin de los acuerdos del Consejo Asesor y sus Comisiones.

d) Despachar los asuntos de trámite.

e) Las demás funciones que le atribuyan las Leyes, Reglamentos o el Consejo Asesor y las distintas Comisiones previo acuerdo de las mismas hecho constar en Acta.

Artículo 8. 1.— Formarán parte de la Comisión Permanente:

a) El Presidente

b) El Secretario General

c) El vocal nombrado a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

d) El vocal nombrado a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo.

e) Tres vocales, designados por el Pleno entre sus miembros.

f) El Secretario de Actas del Pleno si no lo fuese alguno de los anteriores.

2. Actuará como Secretario de Actas el que lo sea del Pleno a no ser que la Comisión Permanente decidiera lo contrario.

Artículo 9.— Serán funciones de la Comisión Permanente:

a) Estudio y tramitación ordinaria de los asuntos que deban debatirse en el Pleno.

b) Suministrar información al Pleno sobre aquellos asuntos que se hayan de someter a debate.

c) Determinar qué asuntos, por su trascendencia deben ser sometidos al Pleno, sin perjuicio de la competencia de éste para decidir, en cada caso, sobre este extremo.

d) Elaborar, para su ulterior aprobación por el Pleno, el informe anual sobre las actividades del Consejo Asesor.

e) Cualquier otro asunto que le sea encomendado por las Leyes, Reglamentos o por el Pleno del Consejo Asesor.

10. Atala.— a) 1.— Aholku Batzorde Osoaren erabakiz Berarizko Batzorde-atalak eratu ahal izango dira, gai jakinetarako txostenak eta lanak prestatzeko.

2. Eginkizun nagusi bi izango dituzte Berarizko Batzorde-atalok: batetik, Batzorde Osoari eta Batzorde-atal Iraunkorrari beren lanak egiten laguntza; bestetik, erakunde desberdinek Euskararen Legea aplikatu eta garatzeko eman beharreko pausoak xehetu eta guztiak lan-jarduna bateratzeko oinarritzko azterlanak egitea. Berarizko ardura eskainiko diote, alor honetan, Soziolinguistikazko Plangintza-Mapari. Guzti hori, jakina, Berarizko Batzorde-atalon sorrera-erabakian zehaztuko diren gainerako xehetasunak aintzakotzat hartuz bideratuko da.

b) 1.— Berarizko Batzorde-atalak aldi baterakoak edo iraunkorrik izan ahal izango dira; bakoitzaren sorrera-erabakiak finkatutakoa izango dute, beti ere, arau gidari.

2.— Bertako kideek, hala izan bidaitezke ere, ez dute ezinbestean Aholku Batzordearen kideetakoak izan beharrik: delako elkarguneari dagozkion zereginenkin nolabaiteko harremana izatea, hori dute ezinbesteko baldintza. Hori dela-eta, era honetako kideez osatuko dira Euskararen Aholku Batzordearen Berarizko Batzorde-atalak:

a) Euskararen Erabilera Normalzeko Oinarri-Legeak markatzen dituen eginbeharrok bete eta garatzeko gaitasun-ahalmenik duten erakundeen ordezkariak.

b) Euskalgintzan, euskararen erabilera normaldu asmoz, diharduten elkarteen ordezkariak.

3. Berarizko Batzorde-atalon kide izan ahal izango dira, orobat, berarizko gai horietan arituak izanik nazioartean halako entzutea irabazia duten jakitunak.

4. Idazkari Nagusiak Berarizko Batzorde guztietan parte hartu ahal izango du.

5. Euskararen Aholku Batzordeak Berarizko Batzorde-atalen Bateragile bat izango du. Bateragile hori 3. ataleko m) pasartean aipatzen diren 12 batzordekideetariko bat izango da. Euskararen Aholku Batzordearen Idazkari Nagusiaren gidaritzapean, Berarizko Batzorde-atal hauet egotxitako eginbeharrok ongi betetzeaz arduratuko da.

6. Euskararen Aholku Batzordearen Idazkari Nagusiak hala proposaturik, Lehendakariaren Dekretuz izendatuko da Bateragilea.

7. Berarizko Batzorde-atalen bilera-deiak Idazkari Nagusiak egin ahal izango ditu edota, hala legokiokeen, Bateragileak. Ohiz kanpoko bilera-deiak, berriz, Aholku Batzordearen Lehendakariak.

11. Atala.1.— Aholku Batzordeak gutxienez hiru hilabetez behin egigo ditu bere ohizko bilerak, eta Lehendakariak edota Idazkari Nagusiak dei egin diezaioten guztian.

2. Batzorde-atal Iraunkorra hilcan behin bilduko da gutxienez, eta Idazkari Nagusiak dei egin diezaion guztian.

3. Berarizko Batzorde-atalak beren sorrera-erabakietan finkatuko den gutxienezko maiztasunez bilduko dira.

12. Atala.— Euskararen Aholku Batzordearen barne-ihardupideaz Dekretu honek araupetu gabe uzten duen

Artículo 10.— a) 1.— Para la realización de trabajos e informes sobre materias concretas, podrán crearse Comisiones Especiales, mediante acuerdo en tal sentido del Pleno del Consejo Asesor.

2. Serán funciones generales de estas Comisiones la de auxiliar al Pleno y a la Comisión Permanente en el cumplimiento de sus funciones y la de realizar cuantos estudios de base sean precisos para analizar y coordinar los esfuerzos y actividades de las diversas instituciones en lo referente a la aplicación y desarrollo de la Ley de Normalización y, en concreto, respecto a la elaboración del Mapa de Planificación Sociolingüística. Todo ello sin perjuicio de las especificaciones que se concreten en el Acuerdo de creación.

b) 1.— Las Comisiones Especiales podrán ser permanentes o no, y se atenderán en su funcionamiento a los términos del acuerdo de su creación.

2. Sus miembros serán personas que, pertenezcan o no al Consejo Asesor, estén vinculadas a las tareas encomendadas a dicho órgano de encuentro. A tal fin, formarán parte de las Comisiones Especiales del Consejo Asesor del Euskera:

a) representantes de las diversas instituciones con competencia en el desarrollo y ejecución de los cometidos establecidos por la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera

b) representantes de las entidades que trabajan en favor de la normalización del uso del euskera

3. Podrán formar parte de estas Comisiones, expertos de reconocido prestigio internacional en la materia objeto de estudio por la Comisión.

4. El Secretario General podrá formar parte en todas las Comisiones Especiales.

5. El Consejo Asesor del Euskera dispondrá de un Coordinador de las Comisiones Especiales. Dicho Coordinador será uno de los 12 vocales al que hace referencia el apartado m) del artículo 3º y velará, bajo la dependencia directa del Secretario General del Consejo Asesor del Euskera, por el correcto cumplimiento de los cometidos asignados a tales Comisiones Especiales.

6. El Coordinador será nombrado mediante Decreto del Lehendakari, a propuesta del Secretario General del Consejo Asesor del Euskera.

7. Las Comisiones Especiales podrán ser convocadas con carácter ordinario por el Secretario General, en su caso, por el Coordinador de las Comisiones Especiales; y, con carácter extraordinario, por el Presidente del Consejo Asesor.

Artículo 11. 1.— El Pleno del Consejo Asesor se reunirá al menos una vez al trimestre de forma ordinaria, así como cuando lo convoque su Presidente o el Secretario General.

2. La Comisión Permanente se reunirá una vez al mes como mínimo y, siempre que la convoque el Secretario General.

3.— Las reuniones de las Comisiones Especiales, tendrán la periodicidad mínima que se establezca en el acuerdo de su creación.

Artículo 12.— En todo lo no regulado en el presente Decreto sobre funcionamiento interno del Consejo

guztietan 1958ko Uztailaren 17ko Procedura Administrativoari buruzko Legeak bere I. tituluaren II. atalburuan begiz jotakoa hartuko da gidari.

13. Atala.— Euskararen Aholku Batzordea eratzeak eta horren jardunak ekar ditzan nolanahiko gastuak Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritzak dituen Aurrekontuen gain joango dira.

14. Atala.— Euskararen Aholku Batzordearen kideek arauz finkatuko diren bidai gastu eta egun-sarietarako eskubidea izango dute.

HIZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAZ

15. Atala.— Euskal Herriaren soziokulturazko batasunari sendo eusteko eta bere etnolinguistikazko bizitasuna indartzeko, Euskararen Aholku Batzordea osoa entzun ondoren honako ekintza hauak bideratzeko ahalmena du Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak:

a) Ikerlanez edo jagoletzaz euskalgintzan diharduten Nafarroako Herri-Aginteekin Eusko Jaurlaritzak bere aginpide-alorrean eratuko dituen kulturazko lokarri-harremanak bideratzen saiatu eta indartzea.

b) Gainerako Euskal Lurralteetako erakunde eta Herri-Aginteekin Jaurlaritzak, Legeak ezarritako ildotik, ezar ditzakeen lokarri-harremanak eratzeko beroni proposamen jakinak aurkeztea.

c) Jaurlaritzari beste nonnahiko bizigune elebidunekiko harreman-bideak sendotzeko proposamenak aurkeztea, hizkuntz aniztasuna aintzat hartuko duten herriarteko politika-neurriak indartu asmoz.

ERABAKI GEHIGARRIAK

Lehenengoa: Jaurlaritzak, euskalgintzan jardungo duen erakunde publiko berri bana sortu ahala eta erakunde horren proposamenean oin-hartuz, kide bana izendatu ahal izango du Euskararen Aholku Batzorderako.

Bigarrena: Euskararen Aholku Batzordeak berak onartuko du bere barne-jardunerako Araudia.

INDARGABETZEKO ERABAKIA

1982ko Urtarrilaren 11ko Dekretua indargabeturik gelditzen da, Dekretu honetan esandakoaren kontra legokeen guztian.

AZKEN ERABAKIA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emandako egun berean jarriko da indrean.

Gasteizen, 1987ko Abenduaren 15ean.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Asesor del Euskera, será de aplicación lo previsto en el capítulo II del título I de la Ley de Procedimiento Administrativo de 17 de Julio de 1958.

Artículo 13.— Los gastos de todo tipo que se originen con motivo de la creación y funcionamiento del Consejo Asesor del Euskera, serán con cargo a la correspondiente partida que se incluirá en los Presupuestos de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno.

Artículo 14.— Los miembros del Consejo Asesor del Euskera tendrán derecho a gastos de viaje y dietas, en la forma que reglamentariamente se determine.

DE LA SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGUISTICA

Artículo 15.— A fin de preservar la unidad sociocultural y fomentar la vitalidad etnolinguística de Euskal Herria se faculta a la Secretaría General de Política Lingüística para que, oído el Pleno del Consejo Asesor del Euskera:

a) propicie y promueva el establecimiento de vínculos culturales que, en el ámbito de sus competencias, el Gobierno Vasco establecerá con las instituciones y poderes públicos de Navarra que realicen actividades de investigación, protección y fomento del euskera

b) eleve al Gobierno propuestas de establecimiento de vínculos que éste, en conformidad a la legalidad vigente, pueda establecer con las instituciones y poderes públicos de los demás Territorios que albergan la Comunidad Lingüística euskaldun

c) proponer al Gobierno el fortalecimiento de vínculos e intercambios con otros emplazamientos bilingües, a fin de facilitar el establecimiento de políticas comunitarias que tengan en cuenta la pluralidad lingüística

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera: El Gobierno, podrá nombrar para el Pleno del Consejo Asesor un vocal, a propuesta de cada una de las instituciones u organismos de carácter público que vaya creando y, que tengan por objeto el fomento y la protección del euskera y de la cultura euskaldun.

Segunda: El Consejo Asesor del Euskera aprobará su propio Reglamento de régimen interno.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto de 11 de Enero de 1982 en lo que se oponga a lo establecido en este Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de Diciembre de 1987.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.